



Gradu Amaierako Lana

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2014 /2015 ikasturtea

**ESKOLA PORROTA
HEZITZAILEEN BEGIRADA**

**Egilea: Marina Mugica Aransay Zuzendaria: Itziar Aurrekoetxea
Gurturbai**

Leioan, 2015eko Ekainaren 4an

EGILEAREN ONIRITZIA

A U R K I B I D E A

Sarrera	4
1. Esparru teoriko eta kontzeptuala.....	7
1.1.1 Zer da eskola porrota?.....	7
1.1.2. Eskola porrotaren zifrak estatu mailan eta EAEn.....	10
1.2 Eskola porrota: zenbait diziplinaren begirada.....	12
1.2.1 Soziologiaren ikuspuntutik.....	12
1.2.2 Politika eta Ekonomiaren ikuspuntutik.....	14
1.2.3 Psikologiaren ikuspuntutik.....	15
2. Lanaren garapena. Aukeratutako eredu esplikatiboa.....	16
2.1. Eskola porrota eta ikasteko zailtasunen arteko harremana.....	16
2.2. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua: nola ikasten dugu?.....	17
2.3. Haurtzaro eta nerabezaroko garapen pertsonalaren analisisa.....	18
2.4. Eskola porrota eta Eskola arrakastaren eredu kontzeptuala.....	18
2.5. Eskola porrotean eragiten duten faktoreak.....	21
3. Ondorioak.....	22
4. Bibliografia.....	24

ERANSKINAK

1. Eranskina: Bugelskiren ikaskuntza-kurbak
2. Eranskina: Yerkes eta Dodsonen legea
3. Eranskina: Eskolako giroa eta lanarekiko moldatzea aztertzeke taula
4. Eranskina: Eskola porrotaren eredu kontzeptualaren markoa

ESKOLA PORROTA HEZITZAILEEN BEGIRADA

Marina Mugica Aransay

UPV/EHU

Laburpena: Eskola Porrota kaltegarria da ez bakarrik jasotzen duten familientzat, gizarte osoarentzat baizik. Kezkagarria da gure eskolak ikasle guztien heziketa egokia ziurtatzeko kapazak ez izatea. Irakasleok ez badugu gure ikasle guztien arrakasta lortzeko baliabiderik, gure ahalegin guztiak alferrikako lana bihurtuko dira. Lan honetan, informazioaren bilketa egin da eta analisiaren bidez, Eskola Porrotaren esangura argitu nahi izan da, diziplinarteko ikuspuntu batetik: bere faktoreak, arrazoiak eta ondorioak identifikatzen dira, egoeraren azterketa bat egiten da eta irakasleentzat Eskola Porrota garaiz aurreikusteko eta saihesteko jarraibidea ere proposatzen da.

Eskola porrota, Eskola arrakasta, familiak, irakasleak, hezitzaileak, , Lehen hezkuntza, ikaskuntza, irakaskuntza, ikaskuntza prozesua.

Abstract: School failure is harmful not just to the family coping with school failure, but to the whole society. It is worrying the fact that our schools are unable to ensure an adequate education for all students. If the teaching staff are not provided with all necessary resources to make all students reach their academic goals, all of our efforts will be useless. This work aims to clarify the concept of 'school failure': factors leading to it, consequences issuing from it and its main reasons are identified from a multidisciplinary point of view, the current situation is analysed and some standards are proposed in order to foresee and prevent school failure.

School failure, School success, families, teachers, educator, Primary, learning, teaching, learning process.

Resumen: El Fracaso escolar es perjudicial no solo para la familia que lo padece, sino para toda la sociedad. Es preocupante el hecho de que nuestros colegios no sean capaces de asegurar una educación adecuada de todos los alumnos. Si los profesores no tenemos los recursos para conseguir el éxito de nuestros estudiantes, todos nuestros esfuerzos serán en vano. En este trabajo a través de la recogida de información, se aclara el significado de Fracaso Escolar, se identifican sus factores, razones y consecuencias desde un punto de vista multidisciplinar, se hace un análisis de la situación y se proponen unas pautas para prever y prevenir el fracaso escolar.

Fracaso escolar, éxito escolar, familias, profesores, Primaria, aprendizaje, enseñanza, proceso de aprendizaje.

Sarrera

Eskola porrota gaia aukeratzearen zergatia

Lan hau egiteko interes profesionalaz gain, interes pertsonala ere banuen, nik neuk ere bere garaian arazo akademikoak izan nituelako eskolan. Ikasketekin ondo ibiltzeko erabat gai nintzen arren, zenbait arrazoi zirela medio, ez nintzen gainontzeko ikasle gehienak bezain ondo moldatzen. Beste modu batera esatearren, ni “ikasle estandar” delako kategoria horretatik kanpo geratzen nintzen erabat. Eta gehiengo “ez oso on, ta ez oso txar” hori ondo ibiltzeko prestatuta dagoen sistema honetan, hots, ikasle bakoitzaren berezitasunei behar bezalako arreta eskaintzeko ahalmenik ez duen sistema honetan, estandarretik kanpo geratzen diren ume eta nerabeek porrota jasateko aukera nabarmenak dituzte.

Gauzak horrela, ikasten jarraitzeko grinak oso goiz egin zidan ospa, beste kasu askotan baino askoz ere goizago. DBH bukatu orduko jada ez nuen ikasten jarraitzeko batere gogorik, ezta kemenik ere. Urte askotan zehar nire buruari errua bota eta bota ibili naiz, arazoa neu nintzela, ikasketetan arrakasta lortzeko ez nintzela gai eta horrelakoak pentsatzen. Ikastetxean eta inguruan behin eta berriro entzundakoak guztiz barneratuta nituen: “Ez duzu batere ahaleginik egiten gogoak ematen ez dizulako”. Edo “ez zara memela, alfer galanta baizik”. Irakasleek horrelakoak zergatik botatzen zizkidaten ez dakit, baina susmoa daukat, askotan beren kontzientziak lasaitzeko botatzen zizkidatela, haien erantzukizun parte deuseztatzeko, edo besterik gabe ezjakintasunagatik, egoera kudeatzeko ezagutza faltagatik. Gurasoen kasuan, ordea, jakin badakit desesperantza hutsagatik zela.

Tierno Jimenezek dioen moduan, askotan kontrakoa dirudien arren, eskola porrotaren biktima bakarra eta gehien sufritzen duena ikaslea bera da (Jimenez, 1997). Nik sufritu egin nuen, baina baita jo eta ke borrokatu ere, eta azkenean aurrera egin nuen. Hainbeste urtetan galdutakoa berreskuratzeke gorriak eta bi ikusi nituen, ahalegin handia egin behar izan nuen, baina pixkanaka-pixkanaka galdutako oreka berreskuratzen hasi nintzen. Prozesu horretan zehar, familiak berebiziko garrantzia izan du, bereziki amarengandik jasotzen nuen maitasuna eta laguntza. Izan ere, beti sinetsi izan du nigan eta ikasketetan aurrera egin nezan eman ahal izan duen guzti-guztia eman dit.

Gerora, irakasle-eskolan ikasitakoak nire ibilbidearen inguruan hausnarketa sakonago bat egiteko aukera eman dit, eta honako ondorio hau ateratzea lortu dut: ni ezin

ninteeen izan nire buruak pairatzen zuen arazoaren sortzailea, edo beste era batera esanda, ni ez nintzen egoera horren erruduna.

Gauzak horrela, hain esanguratsu zaidan gaiaren inguruko ikerketa-lana aurkezteko pozarren sentitzen naiz gaur.

Lanaren nondik norakoak

Hurrengo orrialdeetan aurkituko duzun lanaren muina hiru alderdi nagusik osatzen dute: eskola porrotaren arazoari buruzko txostena; eskola porrota aztertzeke aukeratutako eredu esplikatioboaren deskribapen teorikoa eta aplikazio potentzialak; eta lana burutzeko prozesuan ateratako ondorio pertsonalak.

Hiru alderdi hauek behar bezala garatzeko, lana lau atal nagusitan antolatu dut: lehenik eta behin, esparru teoriko eta kontzeptuala definitu eta mugatuko dut, hainbat egileren kontzeptualizazioak bilduz; bigarrenik, eskola porrota gaiarekiko zenbait diziplinek duten ikuspegiaz arituko naiz; hirugarrenik, lanaren gorputza litzatekeena dator, eta bertan hautatutako eredu esplikatioba sakonki aztertuko dut, tartean funtsezkoak diren zenbait azpi-alderdi landuko ditudalarik, besteak beste, eskola porrota eta ikasteko zailtasunen arteko harremana, ikaskuntza prozesuaren analisia, haurtzaro eta nerabezaroko garapen pertsonalaren analisi funtzionala eta eskola porrota eta arrakastaren eredu kontzeptuala, ikasketa-jarreraren eta porrotaren eragile nagusienak tartean. Bukatzeko, prozesu osoan zehar ateratako ondorioen berri emango dut, eta interpretazio pertsonala abiapuntu hartuta, egoera hobetzeko proposamen batzuk egingo ditut.

Ikerketa-lanaren garrantzia

Historian zehar, eskola porrota hezkuntza-sistema eta herrialde guztietan gertatu da, baina herrialde garatueta bizi-baldintzen hobekuntzaren ondorioz, hezkuntzak bete beharreko xedeen eskakizun-maila geroz eta altuagoak dira. Politikariek, hezitzaileek eta teknikoek eskolan kale egitearekin amaitzeko helburuarekin hainbat neurri hartu dituzte. Harrigarria badirudi ere, eskakizun-mailaren igoera horrek ez du eskola porrot kasuen kopurua murriztu. Aitzitik, azken urteotan, Espainia eta inguruko hainbat herrialdetan, zifrek gora egin dute, kasu batzuetan besteetan baino nabarmenago, baina gauza bat ziurra da, alegia, gaitza hedatzeko prozesuan dela. (E. Manuel García Perez, 2014)

Gainera, hainbat adituk dioen bezala, eskola porrotaren arazoa ez omen da familiek bakarrik pairatzen duten gaitza, gizarte osoarengan eragina duen fenomeno baina. “La

sociedad en general, lleva siglos perdiendo a personas que fracasaron en la escuela por una razón o por otra” (Gaja Jaumeandreu, 2003).

Egoera horren aurrean, hezitzaileok ezin dugu beste alde batera begiratu, ezin dugu arazoa ukatu. Batetik, gure ikasle guztien arrakasta ziurtatzeko beharrezkoak diren baliabide guztiak (pertsonalak, materialak, egiturazkoak...) mahai gainean jartzen ez badira, gure ahalegin guztiak alferrik izango dira. Bestetik, jendarte bateko kide gisa, oso kezkarria da gure eskolek ikasle guztien hezkuntza egokia ziurtatzeko ahalmenik ez izatea. Horregatik, eta bereziki hezkuntzan lanean dihardugunontzat, eskola porrotaren fenomenoak berebiziko garrantzia du. Izan ere, gaitzak gudan eragin bikoitza edo hirukoitza izan dezake, askotan irakasleak aldi berean irakasle, gizarteko kide eta guraso baikara.

Lan honekin honako hiru helburu hauek lortu nahi ditut: lehenik eta behin, eskola porrotaren funtsa eta hezkuntzako langileengan duen eragina argi eta garbi azaltzea. Horretarako, aditu eta korrante ideologikoen kontzeptualizazio desberdinak alderatuko ditut eta hezkuntzan eragina duten diziplina desberdinen ikuspuntuak aztertuko ditut. Bigarren helburua zera da, eskola porrotaren arazoak gaur egun duen hedapenaren egoera zertan den azaltzea. Eta horretarako fidagarritasun handieneko erakunde publiko eta pribatuek gure esku jartzen duten datuez baliatuko naiz, estatu mailatik hasi eta Euskal Herrian daukagun egoera aztertzeraino. Eta azkenik, hirugarren helburu gisa, eskola porrota eragiten duten faktore guztien analisi sakon batetik abiatuta, egoera aurreikusteko eta arazoari aurre egiteko jarraibideak zeintzuk diren argituko dut.

1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala

1.1. Eskola porrotaren kontzeptua. Zer da eskola porrota?

Historian zehar, korrante teoriko eta diziplina desberdinen influentziagatik, kontzeptuak esanahi desberdinak jaso ditu (Gareca, 2005). Hirurogeita hamarreko hamarkada arte, eskola porrota ikaslearen adimengabeziaren ondorioz emandako fenomeno zela uste zen eta gauzak horrela, maila sozioekonomiko baxuko ikasleak “tenteltzat” jotzen ziren. (Ayuste a. f. r., 1994). Aurrerago, 80ko hamarkadan, porrota etxeko estimulazio faltagatik ematen zela uzte zen, eta horrela “Kulturagabeziaren teoria¹” deitutakoa jaiotzen zen (Laino, 1988).

¹ Kultura gabeziaren teoria: “La “teoría del déficit cultural” aseguraba que las dificultades en el aprendizaje/el fracaso en la escuela de ciertos alumnos, se debían a que éstos no eran adecuadamente estimulados en el seno familiar, o bien, porque sobre

XXI. mendearen hasieran, Alvaro Marchesi Ullastres eta Carlos Hernandez Gil ikerlariak porrota jasaten duten ikasleak honela definitzen zituzten (Marchesi, 2003): Derrigorrezko hezkuntza amaitzean ikasten jarraitzeko gogorik ez duten ikasleak edo horretarako gai ez direla uste dutenak, eta gizartean eta lan munduan ibiltzeko beharrezko trebetasunak lortu ez dituztenak.

Oraintsu gurean gailendu egin diren kontzeptuen artean, Europako Komisioak (2009) plazaratutakoa dugu: eskola porrota derrigorrezko hezkuntza gainditzen ez denean gertatzen da (Aramendi, 2013).

Hala ere, nire iritziz, hezitzaileontzako definiziorik baliagarriena Garcia Perez eta Magaz Lagok (García Pérez, 2013) emandakoa litzateke, bereziki lehen hezkuntzako maisu eta maistrentzat. Gehienetan, eskola porrotaren arazoa aztertu eta hausnartzen dugunean, estatistika-zifrak baino ez dira kontuan hartzen, alegia, derrigorrezko hezkuntza gainditu gabe ikasteari uzten dioten ikasleen jazoera-kopurua, eta hori, arazoa bera aztertzea baino, arazoak dakartzan azken ondorioei erreparatzea da. Eta egile gehienek diotenaren arabera, 16 urtetik gorakoen eskola-uzteak soilik aintzat hartzea ez omen dauka inolako zentzurik, edo behintzat arazoa konpontzea nahi baldin badugu: “¿Qué ocurre cuando un menor de siete años no aprende a leer correctamente, no comprende el fundamento de una suma, la multiplicación o la división? ¿Qué sucede con tantos escolares de 5º de Primaria que no comprenden los textos que leen, o que son incapaces de realizar un esquema o un resumen de un texto?” (GARCÍA PÉREZ, 2013)

Hori dela eta, estatistika kontzeptu hutsalak alde batera utzita, hezkuntzako langileok arazoa identifikatzeko baliaitu beharreko definizio edo irizpidea: “Ikasle batek hezkuntza-maila jakin baterako araututa dauden helburuak lortzea ezinezkoa egiten zaionean eskola porrot baten aurrean gaude”.

Ildo horretatik, Garcia eta Magazek beren Eskola Porrotaren Eredu Esplikatiboan “ikasteko zailtasunak”, “eskola porrota” eta “curriculum atzerapena” kontzeptuak bereizten dituzte, eta aurrera egin baino lehen, hona hemen bereizketa hori zertan datzan:

Ikasteko zailtasunak dituzten ikasleak hezkuntza eredu egokia jasotzen dute eta hori bide arruntetan ematen da; memorizazio, eta ikasketa-jarduerei esfortzu egokia ematen diote, ikastegira erregulartasunez joaten dira eta beren ikasteko jarrera egokia da. Baina hala eta guztiz ere, ez dute eskola-errendimendu onargarri bat lortzen.

ellos pesaba una herencia parental de “incapacidad”, por lo cual, se ubicaban en un lugar de desventaja, en relación a lo que la escuela les requería como aprendizajes básicos para empezar la alfabetización, y que ellos lamentablemente no los poseían. (Laino, Fracaso Escolar, reflexiones, propuestas y acciones, 1988)” (GARECA, 2005)

Eskola porrota ikasturte edo maila jakin bat gainditzeko curriculumak ezarritako helburuak eskuratzeko ezintasuna da. Honen arabera, eskola porrot kontzeptua erlatiboa izango litzateke: eskakizun-maila altua duten ikastegiek eskakizun-maila ertaina dutenek baino indize altuagoak dituzte. Beste autore batzuek, Maria Luisa Ferrerosek esaterako, ikastetxeak jokatzen duen paperaren garrantzia aipatzen dute (Ferrerros). Porrota faktore anitzen interakzioaren emaitza da. Horietako faktore batzuk ingurukoak dira eta beste batzuk pertsonalak, eta era berean faktoreak igarokorrak edo iraunkorrak izan daitezke.

Curriculum atzerapena ikaslea bere adinagatik dagokion maila baino baxuago batean egotea da. Eskola atzerapenaren arrazoiak honako hauek dira: eskola berandu hastea, eskolatze prozesuan etenaldi bat egotea, edo mailaren batean eskola porrota jasatea (errepikatzea).

Dena den, “eskola porrota” nozioaren apriorizko esanahiaz harago, garrantzitsua iruditzen zait “porrot” hitzaren eduki semantiko ezkorra aipatzea ere. Hezkuntzan lan egin duten askok “eskola porrot” terminoa kontzeptu horiek ez erabiltzea erabaki dute, berez konnotazio negatiboa duelako eta ikaslearengan autokontzeptu ezkorra sortzen duelako (García, 2009). Oso termino kritikatu izan da, harekin lotzen diren ideia jakin batzuk direla eta (Marchesi, 2003; Cunchillos, 2004). Alde batetik, lehen aipatu dudan moduan, “porrota” hitzak, berez, balio negatiboa du. Ikasleari galtzaile irudia eta frustrazioa atxikitzen dio, eta titulua lortzen ez duten pertsonen autoestimu baxua izatea eragiten die, eta gainera ²estigma soziala sortu daiteke. Bestalde, izen horrek ikaslea dela porrota egin duena agerian uzten du. Marchesik, adibidez, “eskola porrota” terminoaren esangura eztabaidagarria zela esan zuen. Haren arabera, porrot egitea aurrera ez egitea da. Horrek zera esan nahi du, ikasleak ez duela batere ikasi. Eta hori,

Marchesik dioten moduan, ez da egia. Beraz, “porrota” hitza erabiltzea ez da batere egokia, ikasleak bere burua oso ezorki irudikatzea dakarrelako, eta horrek bere autoestimuan eragiten duelako (Marchesi, 2003).

Beste aldetik, Rimon Gajak bere “Porqué suspenden nuestros hijos?” izeneko liburuan “eskola porrota” terminoa ez erabiltzearen erabakia hartzen du, eta haren ordez “ikasteko zailtasunak” izen multzoa proposatzen digu (Gaja Jaumeandreu, 2003).

² Estigma soziala: Pertsona baten aurkako gaitzespena bereizgarriak diren giza arrazoiengatik, gizarteko beste partaideengatik desberdintzen dituztenak. (ABC)

Horietaz gainera, beste esamolde batzuk ere proposatu izan dira, esate baterako: “errendimendu gutxiko ikasleak” edo “ikasteko zailtasunak dituzten ikasleak”, Gajaren kasuan aipatu dudan moduan (García, 2009). Baina, Marchesik azaltzen duenez, “eskola porrota” terminoa hedatuago dago herrialde guztietan, eta beste esaera batzuk baino sintetikoagoa³ da (Marchesi, 2003). Hori dela eta, ikerketa-lan honetan aztertzen dihardugun fenomenoari “eskola porrota” deitzen jarraituko diot.

³ Esaera Sintetikoa: Sintesiari dagokion esaera. (HARLUXET, Hiztegi entziklopedikoa)

1.2 Eskola porrotaren zifrak estatu mailan eta Euskal Autonomia Erkidegoan

Behin kontzeptuaren ideia orokorra argituta, orain gertakari honen egoeraren inguruko datuen azterketa egingo dut. Horretarako bi ardatz nagusi hartu ditut: eskola porrotaren zifrak Espainian, Europar Batasunaren testuinguruan kokatuta, eta eskola porrotaren zifrak Euskal Autonomia Erkidegoan.

1.2.1 Estatu espainiarra

Estatu espainiarreko datuak behar bezala aztertzeko, Europar Batasunaren testuinguruan kokatu beharra daukagu. Bi mila garren urtean Lisboan ospatu zen biltzarrean, Europar Kontseiluak gazteek ikasketak uztearen inguruan eztabaidatu zuen eta ondoko helburu hau jarri zuen: 18 eta 24 urte bitarteko adina izanik derrigorrezko hezkuntza bukatutakoan ikasketak uzten duten gazteen kopurua erdira gutxitzea. Urte berean, espainiar estatuko eskola-uzte indizea %28,8koa zen, Europar Batasunaren batez bestekoa baino hamar puntu altuagoa (Amaia Arregi Martinez, 2007). Bi mila eta hirugarren urtean egindako ikerketen arabera, Europar Batasuneko 28 herrialdeen artean, Espainiak DBH amaitu gabeko biztanleriarik handiena zuen, Malta eta Portugalen atzetik.


Bi mila eta bederatzigarren urtean argitaratutako artikulu batean, Bolivar eta Lopezek honako hau esan zuten: “Unos índices tan altos de fracaso escolar no están justificados en un país con unos niveles de renta como España, con una buena escolarización en Infantil y Primaria, así como altos índices de población universitaria” (BOLIVAR BOITIA, 2009). Autoreek arrazoia zuten, kontuan hartzen bada, Europako Komisionen estatistiken arabera, Espainiak ikasle bakoitzeko batezbeste 7.452 euro gastatzen dituela urtero, eskola porrotaren rankingean hobeto doazen hainbat herrialde baino askoz ere diru gehiago (EUROSTAT). Urte berean argitaratutako txosten batean, ELGak gogor kritikatu zuen Espainian dagoen errepikapen kopuru altua, justifikagarria ez zelakoan (FUENTES, 2009) :

“La comparación internacional de los resultados de PISA sugiere que los resultados conseguidos en competencias básicas no pueden ser responsables de la mayor parte de la alta tasa de repetición. Como se señaló anteriormente, debido a la distribución de los resultados de PISA en España, la proporción de alumnos que no alcanzan niveles de competencias básicas en lectura, matemáticas y la ciencia no es sustancialmente más alto que en muchos otros países que, sin embargo, tienen tasas de repetición mucho más bajas” (BOLIVAR BOITIA, 2009)

Bolivar eta Boitiak diotenez, errepikapena errefusaketa modura erabili da, curriculuma ikasleei nola egokitu ez jakiteagatik.

1.2.2 Euskal Autonomia Erkidegoa

Zenbait txostenek Espainiako autonomia erkidegoen arteko ezberdintasunak agerian uzten dituzte. Autonomia erkidego batzuk Europar Batasunak ezarritako hezkuntza helburuen parean dauden bitartean, gehienak helburu horiek lortzetik oso urrun daude. Zorionez, taulan aztertu ahal denez, Euskal Autonomia Erkidegoa helburu horietatik nahiko gertu dago. Azken ikerketek Euskadi Europak aurrez ikusitako helburua gainditu duela eta euskaldunok Europar Batasuneko herrialdeen batez-besteakoaren azpian kokatu gairela erakusten dute. (Amaia Arregi Martinez, 2007)



Irudia 1: Eskola utzi zuen 18 eta 24 bitarteko adinako biztanleriaren ehunekoa 2004. urtean

Beheko taulan aztertu ahal denez, aipatutako komunitateen hezkuntza egoeren desberdintasunak oso nabarmenak dira. 2013 urtean, Euskal Herriak %9,9ko Eskola Uzte tasa zuen, Espainiako batez bestekoa %23koa zen bitartean. (EUROSTAT)

El abandono tras la educación obligatoria

Abandono educativo temprano por C.A: Porcentaje de población de 18 a 24 años que no ha completado el nivel de E. Secundaria 2.ª etapa y no sigue ningún tipo de educación-formación. Año 2013



Irudia 2 Espainiako komunitate erkidegoen Eskola Uztearen ehunekoak. 2013

Ezberdintasun horiek autonomia bakoitzak hezkuntzan inbertitzen duen kopuruen desberdintasunarekin zerikusia dute. Espainiako Ekonomia Ministerioak 2008an argitaratutako datuen eredura, EAEk urtero 8.858 euroko gastua du, Andaluziaren (ikasle bakoitzeko inbertsio txikienetariko bat duena) bikoitza baino gehiago (Amando Vega, 2012).

1.3 Eskola porrota: zenbait diziplinaren begirada

Eskola porrotaren ikuskera zabalago eta aberatsago bat lortzeko fenomeno diziplina desberdinen planteamendutik behatuko dut. Soziologia, Ekonomia, Politika, eta Psikologia hezkuntzarekin elkarlotuta dauden zientziak dira. Jarraian bakoitzak gaiari ematen dion ikuspegiaren analisi labur bat egingo dut.

□ **Soziologia**

Ezin da hezkuntza arazo bat aztertu dagokion gizarte-testuinguruan kokatu gabe, hezkuntza fenomeno sozial eta kolektibo bat baita (Imaz, 2008). Bi elementu horiek, hezkuntza eta gizartea, elkarri eragiten dute. Eskola porrota edo arrakastak harreman handia du testuinguru sozialarekin: Gizartearen desberdintasun sozialak Eskolako emaitza orokorretan islatzen dira. (Amando Vega, 2012). Ikerketek ikaslearen jatorria eta Eskolako emaitzen arteko lotura bat dagoela dela baieztatzen dute. 1973 urtean Bourdieu eta Passeronek “Los estudiantes y la Cultura” liburuan gurasoen maila soziala eta seme- alaben emaitzen artean korrelazio estatistikoa bat zegoela zela esaten zuten.

(Bourdieu, 1973). Ideia hori “Erreproduzioaren teorian”⁴ kontzeptualizatu zen urte batzuk aurrerago (Bourdieu P. y., 1977). Raimon Gajak umearen ingurugiroak bere ikasketekin duen jarreran eragina duela esaten du ere: “El niño que vive la cultura en su propio hogar, ira a la Escuela motivado por lo que allí le van a enseñar. Todo lo contrario al niño que ve un libro por primera vez cuando llega a la Escuela” (Gaja Jaumeandreu, 2003).

PISAko ikerketek teoria hori babesten dute eskola porrotaren arriskua aldagai sozial jakin batzuei lotuta agertzen dela konfirmatuz, esate baterako generoa, gurasoen hezkuntza maila eta jatorri etnikoa. (Fernandez Enguita, 2011).

Datu enpirikoek argi uzten dute ikaslearen emaitza akademikoak kanpoko faktore sozial batzuek baldintzatzen dituztela, eta, maila orokor batean, ikasle berdinak inguru desberdinetan nota desberdinak aterako lituzketela. Ikaslea, gizarte baten barruan dagoen norbanako giza, bere jaiotzatik arlo jakin batzuetan arrakasta edo porrota izateko alde prestatuta dago. Eta, arau orokorra beti ez bada betetzen ere, arlo akademikoa inguru sozialak baldintzatzen duen arloa da.

Bestalde, eskola porrota ikuspuntu soziologiko batetik analizatzen bada, ezin zaie uko egin gertakari honek dakartzan ondorio sozialei eta delinkuentziarekin zein marjinazioarekin duen lotura zuzenari. Hala ondorioztatzen dute Maza Cosin eta Arribasek ikerlariak beren ikerketan (2010): “Los adolescentes en conflicto con la ley son adolescentes con una experiencia educativa en términos de fracaso escolar, con expulsiones y ausencias del sistema educativo.” (MAZA127, COSÍN128, & ARRIBAS129, 2010).

Baztertze sozialaren prozesuan ere oso paper garrantzitsua jokatzen du hezkuntzak. (Ramírez, 2008). Hori baieztatu daiteke, batez ere bi aspektu kontuan hartzen badira: zenbat eta ikasketa maila baxuago eskuratu, norbanakoak gero eta lanbide aukera gutxiago izango dituela (OCDE 2012) Eta bigarrenik, lanbideak gizartean integratzeko tresna giza duen garrantzia. (Pérez Yruea, 2002).

⁴ Erreproduzioaren teoriaren autoreek (Bourdieu y Passeron 1977) hurrengo ideiak ezartzen dituzte: hezkuntzak gizartearen klaseen desberdintasunak erreproduzitzen ditu, biztanleria aginpean dagoen klase sozialen baloreetan gizarteratzen du, eta langileak modu psikologiko batean hezitzen ditu, modu teknikoan baino, beren lanekin diziplinaz eta era subordinatuan betetzeko.

□ Politika eta Ekonomia

“Sea cual sea el modelo de Estado de que se trate, lo seguro es que la política de la educación se hace desde los aparatos del Estado: Parlamento y Ministerios de Educación” (GENÍS, 1995). Herrialde bateko hezkuntza-egoera bertako politikariek hezkuntza arloan hartutako erabakien ondorioa da.

Espanian azken urteetan hezkuntza arloan egindako aldaketa politiko guztiak horren adibidea dira. Esate baterako LOGSE, Espainian, 90 hamarkada eta gero, hezkuntza egoera hobetzeko asmoarekin egin ziren erreformak. Autore batzuen arabera, aldaketa horrek ez zuen hezkuntza egoera hobetu. Aitzitik, eskola porrotaren tasaren igoeraren arrazoa dela uste duenik badago. “¿Quién fracasó con el fracaso escolar?” liburuan, David Rabadá i Vivesek, eskola porrotaren arazoari errudunak aurkitzen dizkio: oraingo gizartearen eskola porrot tasa altua 90. hamarkadan egindako hezkuntza erreforman oinarritzen dela defendatzen du. Harago joateko, autoreak LOGSE erreformaren hezkuntza gabeziak direla eta, enpresetako buruek OHO delakoarekin ikasketak amaitu zituzten ikasleak kontratatzea nahiago zutela aipatzen du, sistema berriarekin ikasi zuten ikasle gazteak baino (Vives, 2008).

Ekonomia eta hezkuntzaren artekoa, pentsa genezakeenaren kontra, oso lotura estua da. Izan ere, Eskolak eredu kulturalak ekoizten ditu, ikasleak ekonomiaren eskakizunetara molda daitezzen helburuarekin (Genís, 1995). Vega, Aramendi eta Garinek 2012an egindako ikerketek agerian utzi zuten Espainiako Estatuak krisiari aurre egiteko inbertsio sozialaren gainean hartutako murrizketa-neurriak (Comité de derechos económicos, 2012) herrialdearen hezkuntza egoeran eragina izan dutela. Urte berean, Navasek Estatuak zor publikoa itzultzeko hartutako neurriak kritikatu zituen, Gobernuaren intentzioa Hezkuntza Publikoa desagitea zela salatuz: (Navas, 2012)

“Mientras la banca no cesa de recibir todo tipo de ayudas por parte del Estado, la Educación Pública se está enfrentando a una agresión inédita y continuada, tanto por parte de los gobiernos centrales como autonómicos...Recortes que recaen contra una Educación Pública que ya arrastraba muchas carencias...” (NAVAS, 2012)

Autoreak hezkuntza publikoak jasaten darraien erasoak zerrendatzen ditu: esate baterako, irakasle kopuruaren murrizketa, ikasleen ratio maximoaren gehikuntza, gobernuaren hezkuntza eredu elitista ezartzearen asmoa eta ikasleentzako laguntza ekonomikoen beherapenak (Educación M. d., 2011).

Paradoxa da OCDE-ak (Hazkunde Ekonomikorako Erakundeak) krisiari aurre egiteko Espainiako Gobernuak egindakoaren kontrako ekintzak gomendatu dituela: 2012an,

Kooperaziorako eta Hazkunde Ekonomikorako Erakundeak bere herrialde partaideei hezkuntzan inbertitzea eskatu zien, epe luzean krisialdiari aurre egiteko soluzio giza (OCDE, 2012). Erakunde horren ikerketen arabera, Eskola utzi zuten pertsonak laguntza sozialen mendekotasun gehiago zuten. (Amando Vega, 2012)

□ Psikologia

Psikologia arloko autore batzuek egoerari ikuspuntu baikorrago eta itxaropentsuago bat ematen diote. Autore batzuen iritziz, porrotaren egoera ikasteko eta zailtasunei aurre egiteko baliabide gisa erabil daiteke, eta Eskolan huts egiteak ez duela derrigorrez esan nahi bizitzan arrakasta izateko ateak ixten direnik.

“Puede ser más educativo tener dificultades que carecer de ellas. Una dificultad invita a la superación, y la ausencia de dificultades es irreal en la vida. A veces las personas que tienen éxito en la vida no son las mismas que tienen éxito en la escuela. (GALLIFA, 1994)

Maria Luisa Ferreros psikologoak bat egiten du ideia horrekin: Eskolan zailtasunak izateak ez dakarrela unibertsitatean arrakasta izateko ezintasuna, baizik eta une horretan ezin dituela bere gaitasunak erabili emaitza hoberenak emateko. (Ferreros, 2005)

Bernabé Tierno Jimenez psikologoak 1997 urtean eskola porrotaren gakoak errendimendua, gaitasunak eta exigentzien arteko orekarik ez dagoenean ematen dela eta eskola ingurura moldatzeko ezintasunarekin batera porrot sentimendua datorrela azaldu zuen. “Los estudiantes que sufren el fracaso escolar son los que no se han podido adaptar al entorno escolar” (JIMENEZ, 1997)

Psikologiak porrot egiten duen ikaslearen egoera pertsonalari arreta ematen dio ere: eskola porrotaren egoerak tentsio emozional batzuk dakartza berarekin, sarritan ikaslearen garapen pertsonalean eragina dutenak. (Seara, 1997) Eskolan huts egiten duen edozein ikasle autoestimua baxuarekin eta erruduntasun sentimenduekin bizi da; ezgai sentituko da eta gainera beste ikaslearen burlak, gurasoen gaitzespenak, eta, kasu batzuetan, irakaslearen mespretxuko komentarioak eta sarkasmoak jaso beharko ditu. Agresibitatean, lotsan edo ziurtasun eza izan daiteke porrot sentimendua. (Gaja Jaumeandreu, 2003).

2. Aukeratutako eredu esplikatiboa: Garcia Perez eta Magaz Lagoren Eskola Porrotaren Eredu Prebentibo-Esplikatiboa

Orain arte eskola porrotaren esanahia argitu dut, egungo egoera aztertu dut, eta arazoaren arrazoi batzuk azaldu ditut. Baina, hezitzaile giza, nire lanaren auto- analisisa egiten badut, zer atera dezaket informazio teoriko guzti honetatik? Eta garrantzitsuena, etorkizun hurbilean, klaseak ematerako orduan, nire ikasle batek ezarritako helburuak lortzen ez dituenean, informazio hori gatazkari arrakastaz aurre egiteko balioko dit? Ezagutza teorikoa ezinbestekoa da, baina nahiz eta estatistika, arrazoi eta faktore guztiak jakin, modu eraginkorrean jokatzeko urratsak ez baditugu horrek ez du ezertarako balioko. Jarraian proposatzen dudana eskola porrotaren ereduak, Garcia Perez eta Magaz Lagok sortutakoa, irakasleentzat zein familientzat arazoa aurre- ikusteko eta konpontzeko informazio praktikoa eta zehatza ematen du.

2.1. Eskola porrota eta ikasteko zailtasunak

Sarritan, ikasteko zailtasunak eskola porrotarekin erlazionatzen dira. Hezitzaile batzuek eskola porrotaren arazoia ikasteko zailtasunak direla esaten diete gurasoei bere seme-alabei gertatzen zaiona azaltzeko. Baina eredu honen autoreen arabera, hori ez da egia.

Ezin da onartu ikasle baten eskola porrota justifikatzeko ikasteko zailtasunak erabiltzea. Autoreek jartzen duten adibidea oso adierazgarria iruditu zait hori ulertzeko:

Ikasle batek egun batean bere jaka gabe klasetik ateratzen bada, eta gurasoak zergatik atera den eskolatik jaka gabe galdetzen duenean, irakasleak umea baxuegia zela eta horregatik ezin izan duela bere jaka zegoen pertxara heldu erantzuten badio... Gurasoek honako galderak egingo lituzkete: “Zergatik ez diozu lagundu bere jaka hartzen? Zergatik ez dituzte pertxak ume guztiak hartu ahal dituzten altueran jartzen? Edo zergatik ez dira pertxen altuerak ume bakoitzari egokitzen, denak jaka hartu ahal izateko, eta ez bakarrik ume altuak?”. Altuerarekin gertatzen den bezala, umeek beren artean hainbat desberdintasun dituzte: Gaitasunak, abileziak, izaera... Esate baterako, ikasle batzuek denbora gutxitan eta irakaslearen azalpen gutxiarekin erraztasunez ikasten dute. Beste batzuk motelagoak dira, azalpenei arreta jartzean xehetasun inportanteak harrapatzea kostatzen zaie. Argi dago ikasteko zailtasunak dituzten umeek gainerakoek baino eskola porrota jasotzeko arrisku gehiago dutela. Baina, autoreek dioten moduan, pertxak altuera egokian kokatzen badira baxuagoak diren umeek beren jakak pertxetatik hartu ahalko dituzte; eta gaitasun edo abilezia gutxiago duten ikasleek arrakasta akademikoa lortu dezakete ere, behar dituzten laguntzak eskaintzen bazaizkie.

2. 2. Ikaskuntza- irakaskuntza prozesua. Zer da ikastea?

Egileek ikasketa prozesuko oinarriko ezaugarri batzuk aurkezten dituzte. Nire ustez, ume guztien arrakasta sustatu nahi badugu irakasleok gogoan izan behar ditugun oinarriak dira horiek. Horregatik, eta oinarri bakunak badira ere, eskola porrotaren eredu kontzeptualarekin hasi baino lehen horien azalpen labur bat egingo dut:

Lehenik, motibazioa eta errefortzu positiboaren garrantzia aipatzen dute: Ikastea kompetentzia bat eskuratzea da. Hau da, zerbait modu egokian egiteko abilezia lortzea da. Kompetentzia hori bilatzeak zenbait helburu ditu. Ezagutza bat lortzeko ikasten dugu, eta ezagutza hori lortu nahi izatean arrazoi eta intentzio desberdinak daude. Motibaziorik ez badago, ez da ikasten. Ikaslearen ikasketa prozesua hobetu nahi badugu gurasoek eta irakasleek umearen lana goraiatu eta errefortzu positiboa eman behar dugula azpimarratzen dute autoreek.

Bigarrenik, lehen aipatu dudana bezala, gizabanako bakoitzak modu desberdin batean ikasten duela ulertu beharra dugu. Ikasteko estilo desberdinak daude eta norbanako guztiok ikasteko kapazak gara, baina bakoitzak bere erritmoa du. Hori Bugelskik frogatu zuen esperimendu batean⁵, (Bugelski., 1974) subjektu desberdinen ikasketa prozesua aztertuz. Metodo didaktiko berdinak ezin dituela ikasle guztietan emaitza berdinak eman ondorioztatzen du, eta beraz, hezkuntza sistema antolatuta dagoen moduan eskola porrota gertatzea normala dela. Horregatik irakasteko orduan malguak izatea eta metodoa ikasleei moldatzea ezinbestekoa da.

Azkenik, ikasle batek bere ikasketetan ez badoa aurrera, baliteke ez izatea bere aurreko ikasketa finkatuta. Ezinbestekoa da ikasleen aurre ezagutza horiek eta irakasten ari garena bat egiten dutela ziurtatzea.

2.3. Yerkes Dodsonen Legea

“Yerkes- Dodsonen legea”⁶ interesgarria zein aipagarria iruditzen zait ikasketa prozesu egokia ahalbidetzeko. Legea honetan oinarritzen da: Ikasketa prozesua eman ahal izateko, pertsonaren aktibazio kortikala⁷ egokia izan behar da informazioa prozesatu ahal izateko. Aktibazio maila egokiak ikasleari errendimendu egokia izatea ahalbidetzen dio. Aldi berean, gehiegi aktibatuta badago, antsietate gunean sartuko da. Nahiz eta, bakoitzaren izaeratik, ikasle guztiak aktibazio maila berdina izatea

⁵ Ikusi Eranskinetan : Bugelskiren ikasketa kurben grafika.

⁶ Ikusi Eranskinetan: Yerkes- Dodsonen legea.

ezinezkoa izan, irakasleok ikasle guztiak aktibazio maila egokia izatea sustatu behar dugu. Hori errefortzua eta motibazioaren bidez lortzen da. (Yerkes, 1908)

2.4. Hautzaro eta nerabezaroko garapen pertsonalaren analisi funtzionala

Eredu esplikatibo honek umeen autonomia eta inizatiba pertsonalaren jabekuntza prozesua azaltzeko lauki⁸ eskematiko sinple bat aurkezten du. (Perez E. M., 1983) Horren ideia nagusiak honako hauek dira: Umeei sentiarazi behar diegu haiek ez direla egiten dutena. Hau da, bere akzioak eta bere balore pertsonala desberdindu behar da. Ikastetxean behar duen lehenengo gauza ziurtasuna da, hau da, besteengandik onartuta sentitzea. Hori dela eta, garrantzitsua da umeei afektua demostratzea, irribarreekin, haien lana gorai patuz...etab. Nire iritziz, gorai pamenak orekatuak eta benetakoak izan behar dira eta hezitzaileok gogoan izan behar dugu ezin dugula beti gorai patu, baina beti euskarria eta laguntza eman behar dela.

2.5. Moldaketa soziala eta moldaketa akademikoaren arteko erlazioa

Moldaketa Soziala eta Akademikoaren Harremanen taulan⁹, autoreek modu argian adierazten dute harremanen eta arlo akademikoaren harremana: Moldaketa arazoak gertatzeko ez dago arrazoi konkreturik, eragin daitekeen faktore batzuk baizik; esate baterako autonomia gaitasunak, gaitasun sozialak, gaixotasunak, izaera, edo gaitasun intelektualak. Moldaketa arazoak eskolako harremanetan islatzen dira: irakaslearekin, edo beste ikasleekin. Arazo horiek zigor sozialera eramaten dute ikaslea: ikaslea gutxiesteak, gestu txarrak, oihukatzea...etab. Zigor sozialak gestu txarrak, mespretxuak, eta errietak aipatzen dute, beste batzuen artean. Horiek, ikaslearengan haserrea eta areriotasuna sortzen dute eta bere autoestimuan eta autokontzeptuan eragiten dute. Ondorioz, autoreek diotenez, ikasleak antsietate kronikoa sufrituko du eta horrekin datorren modu egokian ikasteko ezintasuna (Yerkes, 1908). Orduan curriculum helburuak edo prozedura helburuak lortzeko ezintasuna edo eskola porrota gertatzen da. Eskola porrotak berriro estigma sozial gehiago ekartzen ditu eta horrela zikloa errepikatzen da.

⁷ Aktibazio kortikala burmuinaren Kortex-aren aktibazioari egiten dio erreferentzia. Burmuinaren azalera edo kortexa funtzio kognitibo askotan parte hartzen du, neurologoek diotenez. Hala nola zentzuak, hizkuntza, akzio boluntarioak, motrizitatea eta memoria. (Vigotsky, 1978)

⁸ Ikusi Eranskinetan: Hautzaroan Autonomia eta Iniziatiba pertsonala.

⁹ Ikusi Eranskinetan: Moldaketa Soziala eta Akademikoaren arteko Harremanen taula.

2.6. Eskola porrotaren Eredu Kontzeptuala¹⁰

Hezkuntza sistema formalak, programaketaren bidez, curriculum bat ezartzen du. Curriculum hori gaitasun intelektual, arreta gaitasunak, eta hizkuntza gaitasun ertainak dituzten ikasleentzat eta gainera aurreko mailetako ezagutzak menderatuta dituzten ikasleentzat pentsatuta dago.

Hau da, curriculuma ezartzean, suposizio batzuk planteatzen dira: Maila bereko ikasle guztiak gaitasun intelektual, arretazkoak, sentimen-motrizitatekoak eta hizkuntza gaitasun berdintsuak dituztela, eta gainera, guztiek aurreko mailetako ezagutza guztiak menderatzen dituztela.

Beste suposizio batzuk ere ematen dira, bigarren mailako suposizioak deitutakoak:

- Ikasle guztiek aktibazio maila egokiarekin heltzen direla klasera, ikasketa prozesu egokian eragingo duena. (Yerkes, 1908)
- Ikasle guztiek arrakasta izan dutela beren ibilbide akademikoan, eta beraz, ikasle guztiek beren emaitzetan itxaropen baikorrak dituztela. Thorndikeren Efektu legearen arabera, (Thorndike, 1921) ikasleek arlo akademikoan aurretik arrakasta esperientziak bizi badituzte ikasketetarako jarrera egokia erakusteko probabilitatea altuagoa dago.
- Ikasle guztiak egoera fisiko eta psikologiko egokietan heltzen dira klasera, denbora luzean arreta mantendu ahal izateko, memoria erabiltzeko, ulermena lantzeko, eta hizkuntza adierazpena lantzeko. Horrek esan nahi du guztiek denbora nahikoa lo egin dutela eta ondo elikatuta ta gaixotasunik gabe etortzen direla klasera.
- Ikasleak arlo sozialean ondo moldatuta daude, eta beste ikaskideekin eta irakasleekin harreman egokiak dituzte. Hori ikasleen arteko kalitatezko harremanetan, eta kooperazioa eta errespetua nagusi den giroan ikusi daiteke, lehiakortasuna eta biolentzia eta baztertze sozialik gabe. Moldaketa soziala desegokiak estresa eragiten du, eta horrek ikasketaren prozesu guztiak baldintzatzen ditu.
- Ikasle guztiek, etxean, gurasoen eta neba- arriben arteko harreman onak dituzte, familiari ondo moldatuta daude. Hau da, kalitatezko harremanak ditu etxean, zigor fisikorik, tratu txarrik eta gatazka afektiborik gabekoak.
- Ikasleek klasera heltzen dira depresio, antsietate edo apatia seinalerik gabe.

¹⁰ Ikusi Eranskinetan: Eskola Porrotaren Eredu Kontzeptuala.

Eskola porrota, egokia ez den errendimendua bezala ulertuta, bi mailatan klasifikatu daiteke: eskola porrot espezifikoa, errendimendu ezegokia curriculumaren arlo batean bakarrik ematen denean; eta eskola porrot orokorra, curriculum osoaren praktikan errendimendu ezegokia denean. Eskola porrota ikaslearen ikasketa portaeraren emaitza da. Horregatik, ikaslearen errendimendua analizatzeko, ikasketa portaera horiek aztertu behar dira. Ikasketa portaerak desegokiak direnean, hiru mota edo mailatan sailkatu daitezke: Ikasketa portaerarik ez egotea, hau da, ikasleak ez duenean ikasten; ikasketa portaera eskasa, ikasten duenean baina behar duen baino denbora gutxiago; eta ikasketa portaera eraginkorra ez denean, ikasleak espero dituen helburuak lortzen ez dituenan nahiz eta ikasteari denbora eta esfortzu nahikoak eman.

Hori esanda, ikasketa portaera desegoki horien faktoreak aztertzeari ekingo diot. Lehenengo ta behin, ez ikastearen arrazoiak aztertu behar dira. Zergatik ez du ikasten ikasle batek? Ez duela ikasten frekuentzia edo intentsitate baxuarekin egiten duela esan nahi du. Autoreen arabera, hori bi arrazoiengatik gertatzen da: ikasketa portaerak iraganean ez direlako indartu, edo momentuan ikasketa errefortzuak oso baxuak direlako. Errefortzu eskasaren arrazoiak hiru izan daitezke:

- Ikasleak ikasten duenean, aurretik eduki beharreko ezagutzak ez ditu eta beraz, ez ditu helburuak lortzen. Horren ondorioz ez du errefortzu positiborik lortzen.
- Ikasleak ikasten duenean, jarduera hori arrakastaz gainditzeko beharrezko gaitasunak ez dituzenez ez ditu helburuak lortzen, eta horren ondorioz ez du errefortzurik lortzen. Oinarrizko gaitasunetan gabezia bat dagoela arrazoiketa logikoa, arreta, memoria, edo hizkuntzaren kudeaketan alterazio bat dagoela esan nahi du. Hori froga fidagarrien bidez frogatu beharko litzateke. Oinarrizko gaitasun horien eza lehenengo oinarrizko ezagutzak lortzeko zailtasunak izateari eraman ahal dio ikasleari. Horrek Eskolan lehenengo porrotak eragingo lituzke. Ondorioz, ikasleak inguru akademikoa frustrazio sentimenduekin lotuko du, zigor sozialak, errefortzu falta, eta huts egitearen sentimendua dela eta.
- Azkenik, ikasleak ikasten duenean, ez ditu aktibazio maila egokiak jarduera burutzeko, beraz ez ditu helburuak lortzen eta ez du errefortzu positiborik jasotzen.

2.7. Eskola porrota eta arrakasta eragiten duten faktoreak

Eskola porrotan eragiten duten faktoreak, autoreek argitzen duten moduan, ez dira eskola porrotaren arrazoiak, baizik eta horien elkarrekiko interakzioaren ondorioz eskola porrota aldeztatu daitezkeen faktoreak. Garrantzitsua da helburuak lortzeko ezintasuna eragin dezaketen faktoreak ezagutzea eta banan-banan aztertzea. Horiek bi multzotan banatzen dira: inguruaren faktoreak eta norbanakoaren faktoreak.

- Inguruaren faktoreak faktore fisikoak eta faktore sozialak osatzen dituzte: Faktore fisikoak Familia arloan eta Eskola arloan ematen dira. Familia arloan etxea, ikas-tokiaren baldintzak eta toki horretan distraitzen dituzten beste estimuluen presentzia sartzen dira; adibidez, jostailuak, telebista, nebarrebak... etab. Eskola arloan, klasearen kokapena, eta distraitzeko beste posibilitate batzuk daude.

Faktore sozialak bi arlotan sailkatzen dira: Arlo familiarra eta arlo akademikoa. Arlo familiarrean etxean dituen ereduaren influentzia osatutako faktoreak dira: jarrerak, baloreak, itxaropenak, heziketa ereduak, eredu zabalen influentzia¹¹ eta gurasoen euskarria. Arlo akademikoan beste ikaslearen eta irakaslearen partez baloratuta sentitzea, irakaslearen errefortzu positiboa eta zigorrak, ikaslearen partez jasotzen diren errefortzu edo zigorrak, eta ikastegiaren eskakizun-maila daude.

Autoreek esaten dutenaren arabera, faktore fisikoak ez dute errendimendua baldintzatzen baina eragin dezakete ikasketa jardura zaildu edo errazten dutelako eta beraz, ikasketa portaera murriztu edo gehiagotu ahal dutelako. Baldintza sozialak, ordea, ikaslearen errendimendu maila eta ikaslearen aktibazio maila baldintzatzen dute.

- Norbanakoaren faktoreei dagokionez, horiek ikasle bakoitzaren baldintza fisiologikoak eta momentuan bizi duen egoera osatzen dute. Ikaslearen aldagai fisiologikoak garapenaren aurrekariak dira: Alde batetik, ezaugarri genetikoak: adimen defizita, arreta defizita, edo hizkuntza defizita. Beste aldetik, amak haurdunaldian izandako arazoak: gaixotasun larri bat, erradiazioen eraginpean jartzea, edo substantziengatik kutsadura, adibidez; erditzean izandako arazoak eta ikaslearen haurtzaroan garapen arazoak.

Azkenik, ikaslearen egungo egoerari dagokien faktoreak daude: Elikadura, denbora nahikoa lo egitea, gaixotasunak, ikusmenean eta entzumenean gabeziak, motrizitate arazoak, antsietatea, beldurrak eta fobiak; estresa eragiten duten egoera familiarrak:

¹¹ Eredu zabalen influentziak ikaslearen familiaz gain dituen ereduari egiten die erreferentzia. Hala nola, auzokideak, lagunak, kirolariak, pertsona famatuak...etab.

tentsio egoerak, ekonomia zailtasunak, delinkuentzia, biolentzia, alkoholismoa, senide baten heriotza... etab. Azkenik antsietatea sorrarazten duten beste faktoreak, hala nola ikaskideen errefusa, biolentzia fisikoa bizitzeko beldurra, eta nerabezaroaren aldaketak sortu dezaketeten krisia.

3. Ondorioak

Oro har eskola porrota Lehen Hezkuntzako lehenengo hiru kurtsoetan manifestatzen hazten dela ideiarekin bat egiten dute adituek. (Fernandez Enguita, 2011, García Pérez, 2013), irakurketa, idazketa eta kalkuluaren atzerapenetan aztertu daitekeena. Arlo horietan atzerapenak dituzten haurrek etorkizun hurbil edo urrun batean eskola porrota izateko arriskua adierazten dute.

Ikasle batzuen atzerapenak ikasleen arteko desberdintasunak direla eta gertatzen dira. Lehen aipatu ditudan desberdintasun horiek, legeak kontutan hartzen ditu: "... el profesor deberá adaptar la metodología didáctica a las características aptitudinales y de personalidad de los alumnos..." (MINISTERIO DE EDUCACIÓN, 2014). Hala ere, ohiko ikastetxeen errealitatean irakasleek ikasleen arteko desberdintasunak aintzat hartu barik aurrera egiten dute. Lehen Hezkuntzako irakasleok ez dugu gure ikasleen huts egitea prebenitzeko aukerarik, ikastetxetan ez dagoelako eskola porrota aurreikusteko inolako protokolo edo jarraibiderik.

Egia esan, irakasleok ez ditugu ikasle guztien arrakasta lortzeko baliabiderik, gure ikasleak haien artean desberdinak direlako, eta ez dugulako beren desberdintasunen inguruko prestakuntza teknikorik jasotzen. Hori dela eta, ikasle guztiak berdina izango balira bezala jokatzeko dugu, beren adinaren arabera guztiak gaitasun, abilezia, eta ezagutza berdina dituztela suposatuz. Zein da horren ondorioa? Erritmoa jarraitu dezaketene baino ez dutela aurrerapenik egiten. Eta ezin dutenek atzerapenekin hazten direla, atzerapen horiek eskakizun-maila igo ahala eskola porrota bihurtzeko arriskuarekin. Lehen Hezkuntzako atzerapenak ez dira oso nabarmenak eta aurretik azaldutako desberdintasunak direla eta, normalak dira. Baina arazoa konpondu nahi denean berandu izaten da eta kurtso bat jadanik galdu da.

Hortaz, nire iritziz irakasleok jasotzen dugun prestakuntzan gehitu beharko genituzke beste hauek ere:

- Irakasleen arteko desberdintasunei buruzko ezagutzak
- Ikasketa prozesuaren funtzionamenduari buruzkoak
- Irakasleen ikasketa portaeraren ingurukoak.

Horretaz aparte, nire ustez, ikastegietan eskola porrota prebenitzeko protokolo bat ezarriko balitz, ikasleen desberdintasunak atzerapenak ez bihurtzea lortuko litzakete.

Protokolo eta praktika horiek gurasoek eta irakasleen arteko kooperazioa eskatuko lukete, gurasoek irakasleei ikasleen ohiko jarrerari buruzko informazioa emateko. Gainera, irakasleak ikasgelan ikaslearen jarreraren behaketa eta erregistro bat egiteko aukera izatea suposatuko luke. Horrela, atzerapenen bat identifikatzen duenean, balorazio bat egin eta gero, ikasleari egokitutako errehabilitazio-programa bat diseinatu beharko litzakete, ohiko ikasgelan edo laguntza-gelan aplikatzekoa litzatekeena.

Ikastetxeetan eskola porrota prebenitzeko talde-ebaluazioak antolatu daitezke, horien bitartez arlo akademikoari, pertsonalari eta sozialari dagozkion faktorerik funtsezkoenak aztertzeko eta gero, horiek, programak antolatzeko eta eskakizunak ezartzeko orduan kontuan hartzeko. Haur Hezkuntzarako eta Lehen Hezkuntzarako egokituta dauden arriskuak detektatzeko protokoloak egon badaude, hezkuntza prozesuan eragiten duten faktoreak ebaluatzen dituztenak. Konkretuki, Lehen Hezkuntzan, hurrengo faktoreak ebaluatzen dituzte: oinarriko kontzeptuen hiztegiaren ezagutza, pertzepzio eta ikusmen-gaitasunak, ikusmenaren eta eskuen arteko koordinazioa, arrazoiketa-gaitasun maila, arreta iraunkorra, arretaren kalitatea, irakurmenaren menderatze-maila eta idazmenaren menderatze-maila. Gainera, beharrezkoa balitz, ondoko faktore hauek ere gehitu litezke: heziketa estiloak, autonomia pertsonalerako gaitasunak eta ohiturak, antsietate/estres egoerak eta berdinekiko moldaketa-maila gehitu ahal dira.

Gaur egun, protokolo horiek erabiltzen dituzten ikastetxe batzuk badaude, arriskuan dauden ikasleak identifikatu eta gero, interbentzio programak martxan jartzen dituztenak (García Pérez, 2013).

Lana amaitzeko, Bernabe Tierno Jimenezek esandako esaldi bat utziko dut, nire iritziz beti gogoratu behar dena: “El éxito del desarrollo humano depende, en gran medida, de la capacidad individual para integrar el fracaso en la propia vida; hacerle frente y sacar provecho de él”

4. Erreferentzia Bibliografikoak

- ABC, D. (s.f.). Obtenido de <http://www.definicionabc.com/general/estigma.php>
- ALVAREZ, J. L., & NIETO, M. (. (199). *El conocimiento social del profesorado y los materiales curriculares*,. Salamanca: Amarú Ediciones.
- Amaia Arregi Martinez, A. S. (2007). *Abandono Escolar Segundo Ciclo de ESO*. Instituto Vasco de Evaluación e Investigación Educativa (IVEI), Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Donostia San Sebastian- Vitoria Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco. Obtenido de http://www.isei-ivei.net/cast/pub/Abandono_ult.pdf
- Amando Vega, P. G. (2012). Adolescentes y jóvenes: desde las conductas de riesgo a la inclusión social. En P. G. A. Vega, *Adolescentes y jóvenes: desde las conductas de riesgo a la inclusión social*. (págs. 171- 172).
- Aramendi, S. G. (2013). Hezkuntza inklusiboa eta Eskola Porrota. *Hikikasi*. Obtenido de <http://www.hikhasi.eus/artikulu/2097>
- AYUSTE A., F. R. (1994). “Planteamientos de la Pedagogía Crítica”. Comunicar y transformar.
- Bolivar Boitia, L. C. (2009). Las grandes cifras del fracaso y los riesgos de exclusión educativa. *Profesorado. Revista de currículum y formación del profesorado.*, 13(3), 52- 77. Obtenido de <http://www.ugr.es/local/recfpro/rev133ART2.pdf> BOURDIEU, P. y. (1973). *Los estudiantes y la cultura* . Barcelona: Laia.
- BOURDIEU, P. y. (1977). *La reproducción*. Barcelona: Laia.
- Bugelski. (1974). *Psicología del Aprendizaje aplicada a la Enseñanza*.
- Carabaña, J. (2004). Ni tan grave, ni tan grande, ni tan facil de arreglar. *Cuadernos de Información Económica* , 131- 139 .
- COMITÉ DE DERECHOS ECONÓMICOS, S. Y. (2012). *Informe Conjunto al Comité de Derechos Económicos, Sociales y Culturales*. Madrid: Comité de Derechos Económicos, Sociales y Culturales. Obtenido de <http://www2.ohchr.org/english/bodies/cescr/docs/ngos/JointSubmission19NGOs_Spain_CESCR48_sp.pdf
- Cunchillos, C. y. (2004). *El fracaso escolar, su cuantificación y su distribución social en la Comunidad de Madrid*.
- E. Manuel García Perez, Á. M. (2014). Guía Informativa para Familias y Docentes. *Éxito o Fracaso Escolar*. (C. F. vida, Ed.) COHS Consultores de Ciencias Humanas. Obtenido de www.prevenciondelfracasoescolar.es
- Educación, M. d. (2011). *Datos y cifras. Curso escolar 2010- 2011*. Madrid : Gobierno de España. Obtenido de <http://www.mecd.gob.es/dctm/ministerio/horizontales/prensa/documentos/2010/sep-tiembre/datos-y-cifras-2010-2011.indd.pdf?documentId=0901e72b803eceed>
- Educación, M. M. (2009). *Las cifras de Educación en España, Estadísticas e indicadores* . Secretaria General Técnica . Madrid: MEC.

(s.f.). *EUROSTAT* .

Fernandez Enguita, M. (2011). Fracaso y abandono escolar en España. En M. Fernandez Enguita, *Fracaso y abandono escolar en España*. Fundacion La Caixa. Obtenido de [http://multimedia.lacaixa.es/lacaixa/ondemand/obrasocial/pdf/estudiossociales/vol29_completo_es.pdf].

Ferreros, M. L. (2005). Eskola Porrota.

FUENTES, A. (2009). *Raising Education outcomes in Spain*. Bruselas: OCDE Economic Department Workins Papers. Obtenido de www.oecd.org/eco/working_papers

Gaja Jaumeandreu, R. (2003). *¿Porqué suspenden nuestros hijos?* Debolsillo .

Gallifa, J. (1994). *Porque suspenden nuestros hijos?* Barcelona : Grijalbo.

García Pérez, E. y. (2013). *Modelo Correctivo Preventivo del Fracaso Escolar. Manual de Referencia* . Madrid, Bilbao: Grupo ALBOR- COHS .

García, J. S. (Enero de 2009). Fracaso Escolar, Pisa y la difícil ESO. *RASE, Revista de la Asociación de Sociología de la Educación*, 2, 56- 85.

Gareca, S. B. (2005). Cultura Inteligencia y Fracaso Escolar. Una triada de complejo abordaje en la practica docente. *Revista Iberoamericana de Educación*, 1.

Genís, O. F. (Martzoa de 1995). Política y Educación. (U. A. Barcelona, Ed.) *Educación* , 21- 41.

Goitia, B. (s.f.). Competencias basicas y curriculum.

Guibert, E. .: (1983). *Historia de la Escuela Normal de Navarra (1831-1931)*. Iruñea: , Institución Príncipe de Viana,.

HARLUXET. (s.f.). *Hiztegi Entziklopedikoa*. Plazagunea.

IMAZ, J. I. (2008). *Hezkuntzari Soziologiatik begira*. Euskal Herriko Unibertsitatea , Hezkuntzaren

Teoria eta Historia Saila . Bilbo: TANTAK . Obtenido de https://scholar.google.es/scholar?q=Hezkuntzaren+soziologia+Bengoetxea&hl=es&as_dt=0,5

Jimenez, B. T. (1997). *Del Fracaso al Exito Escolar*. Madrid: Plaza y Janes.

Lacasa. (2009). Los niveles de fracaso escolar como medida de las desigualdades educativas por comunidades autónomas en España. *Papeles de la Economía Española*(119), 99-124.

Laino. (1988). Fracaso Escolar, reflexiones, propuestas y acciones. *Revista Argentina de Educación* .

Laino. (1988). Fracaso escolar: reflexiones, propuestas y acciones. *Revista Argentina de Educación*.

LANG, P. (1993). *Research review secondary students views on School*.

- LOURDES LÓPEZ CALVO, A. B. (2009). Las grandes cifras del fracaso y los riesgos de exclusión educativa. *Revista de currículum y formación del profesorado*, 13(3), 78. Obtenido de <http://www.ugr.es/local/recfpro/rev133ART2.pdf>
- Marchesi, H. G. (2003). *El Fracaso Escolar, una perspectiva internacional*. Alianza Editorial.
- MAZA127, F. X., COSÍN128, J. V., & ARRIBAS129, R. M. (2010). EDUCACIÓN, VULNERABILIDAD Y DELINCUENCIA JUVENIL: RELACIONES PRÓXIMAS Y COMPLEJAS. *RASE Revista de la asociación de la Sociología de la Educación*, 3 (1), 159- 175. Obtenido de <http://rase.ase.es/index.php/RASE/article/view/134/129>
- Ministerio de Educación, C. y. (2014- 2015). *Datos y Cifras*. Ministerio de Educación, Cultura Deporte.
- Ministerio de Educación, C. y. (2014). *Currículo básico de Educación Primaria*. BOE. Madrid : Boletín Oficial del Estado. Obtenido de <http://www.boe.es/boe/dias/2014/03/01/pdfs/BOE-A-2014-2222.pdf>
- Navas, R. (2012). La crisis y sus consecuencias: La Educación Pública en Peligro. *Viento Sur*. Obtenido de <http://www.vientosur.info/spip.php?article7452>
- ONU. (1966). *Pacto Internacional de Derechos Económicos, Sociales y Culturales*. Obtenido de <http://www.acnur.org/t3/fileadmin/scripts/doc.php?file=biblioteca/pdf/0014>>].
- Pérez Yruela, M. H. (2002). Pobreza y exclusión social en Andalucía. *IESA*.
- Perez, E. M. (1983). *Análisis Funcional del Desarrollo Personal. Avances y Deterioro*. Madrid .
- Perez, K. (s.f.).
- Ramírez, M. J. (2008). APROXIMACION TEORICA DE LA EXCLUSION SOCIAL: COMPLEJIDAD E IMPRECISION DEL TERMINO. CONSECUENCIAS PARA EL AMBITO EDUCATIVO. *Estudios Pedagógicos*, 173- 186. Obtenido de <http://www.scielo.cl/pdf/estped/v34n1/art10.pdf>
- Rodríguez, Q. (2014- 2015). Datos y Cifras del curso 2014- 2015. *teinteresa. es*.
- Seara, J. L. (1997). Del Fracaso al Éxito escolar (prólogo).
- Thorndike, E. L. (1921). *The Teacher's Word Book*. New York City: Teacher's College, Columbia University. Obtenido de https://scholar.google.es/scholar?q=+thorndike+&btnG=&hl=es&as_sdt=0%2C5
- Urabayen, L. (1918). *El maestro de la escuela vasca. Medios para formarlo dentro del régimen actual*. Donostia: Eudko Ikaskuntza.
- Gobierno Vasco, E. J. (s.f.). *Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa*. Obtenido de <http://www1.euskadi.net/harluxet/>
- Vigotsky, L. S. (1978). *El desarrollo de los Procesos Psicológicos Superiores*. Barcelona : Grupo Editorial Grijalbo . Obtenido de http://www.terras.edu.ar/biblioteca/6/TA_Vygotsky_Unidad_1.pdf
- VIVES, D. R. (2008). *QUIEN FRACASO CON EL FRACASO ESCOLAR: SOLUCIONES DESDE EL AULA*.
- LECTIO.Yerkes, R. a. (1908). The relation of strenght of stimulus to Rapidity of habit formation. *The Journal of Comparative Neurology*

